

Artikulu honetan «Txillardegi»k diglosia kontzeptua azaltzen digu, horretarako hainbat adibide zehatz eta ezagun erabiliz. Arabiera, grekoa, frantsesa eta alemanieraren kasuak dakartzkigu adibidetzat eta zehazkiago herrialde ezberdinetan gertatzen diren diglosia fenomeno argiak orriotara. Suitzar germaniarra, Haiti, Quebec eta Albania ditu aipu autoreak. Hauetaz gain, Grezia, Irlanda eta Norvegiako kasuak luzeago azaltzen dizkigu. Konklusio gisa autoreak zera esaten digu, berez nazionala den estandar baten gaineko hizkuntza normalizazioa burutzea ezinezkoa dela nazioa berrindartu eta berreraikitzeke proiektu osoa kontutan hartu gabe.

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO PROZESUETAN NEURRI JURIDIKO HUTSEK DITUZTEN MUGAK¹

Jose Luis Alvarez Enparantza
EHU/UPVko irakaslea

1.- Has gaitezen Fergusonek DIGLOSIA kontzeptua azaltzeko (1959) aukeratutako lau kasuetan zer geratu zen laburki gogoratzen.

Bere aurrikuspenetan ez bezala, hauetan ere ez zen egonkortasunik egon.

Horietako bat berean ere ez zen «A hizkuntza»edo goi-barietatea soziologikoki nagusitu; dikotomietan «B hizkuntza» edo behe-barietate gisa agertzen eta ustez bigarren mailakoa zena baizik.

Gertaerak gainetik irakurritz gero, badirudi behe-hizkuntza nagusitu zaiola politikoki funtzio garrantzitsuenetako hizkuntzari. Lehen begiratuan harriagarria dirudi horrek.

Benetan Fergusonen lau diglosi motak bi azpi-taldetan bildu behar dira.

Alde batetik ARABIERA eta GREKOAREN kasuak ditugu eta, bestetik, FRANTSESA eta ALEMANIERAREN.

1.1.- Grezian ez da Katharevusa gailendu (diglosia greziarreko A goi-barietatea); demotikoaren aldaera normatizatua edo B barietatea baizik.

Era berean, herrialde magrebiarretan eta albokoetan ez da arabiyya klasikoa edo A hizkuntza gailendu, B jatorriko eta bien tartean dagoen estandarra baizik.

Bi kasu hauetan, gizartean benetako erabileran A aldaera garaile ateratzeak (hala izan balitz, berriro baitiogu ez dela hala gertatu), atzera-normalkuntzaren antzekoa adieraziko zukeen, atzera itzultzea hizkuntzaren alorrean, zaharkitutako hizkuntza garaile bihurtuz.

Grezian ere ez da «atzera joan», ezta katharevusa bezalako erdipareko irtenbide baten gainean ere, geroago azalduko dugun moduan.

Ez greko klasikoa, ez arabiar koranikoa, ez dira gaur egun komunikazio hizkuntzak, ez Grezian, ezta Magreben ere.

1.2.- Suitza germaniarrean, bestalde, Fergusonek aurrikusitako egonkortasuna apurtzen hasi da: alemaniera suitzarra edo Schweizer-Deütsch delakoa orain arte alemaniera estandarrarentzat (Hoch-Deütsch) gordetako funtzioak eskuratzen hasi da. Hau Suitzan gero eta gehiago nabaritzen da, ez Suitzako A barietate gisa, atzerriko, inportatutako eta Suitzako hizkuntza errealtateari artifizialki gainjarritako A estandar gisa baizik.

Eta Haitin, azkenik, «duvalierismoaren» erorketaren ondoren, haitiar askoren ustez (nolabait esatearren Frantziako) frantsesa atzerriko hizkuntza estandarra da; eta ez berez Haitiko A aldaera.

Aldi berean, ez suitzar dialektalak, ez kreolé haitiarrak, ez dituzte elkarriketarako funtzioak galdu. Biak Suitzan eta Haitin guztiz indarrean dauden hizkuntzak dira.

2.- Bi gertaera bateragarri hauetatik bi ondorio garbi hauek atera daitezkeela dirudi: 1) diglosi egoeran ez da erraza B hizkuntzari bere funtzio informalak kentzea; 2) are eta zailagoa da benetan komunitate elebidun osoko segmentu edo azpitaldeetatik kanpo dagoen hizkuntza nagusi eraztea komunitate horretan.

Beste era batera esanda: benetako erabilerako hizkuntza azkenean proposaturiko hizkuntzari nagusitu egiten zaio, ofizialtasuna eta legezotasunaren kontu horrekin guztiarekin hornitua egon arren. Komunikaziorako benetako tresna ez den hizkuntza (katharevusa, goi-alemaniera) kanonen arabera gutxietsia den barietateak ezabatuko du.

Berez Fergusonenak diren beste diglosi kasu batzuk ere baieztatu dituzte lehen intuizio hauek.

2.1.- Quebec-en kasuan (A frantsesa, B jouala) bigarrena herriko A hizkuntza bihurtzeko projektua atzera bota da. «Frantziako» frantses hizkuntza elkarriketarako funtzioak bereganatzen ari da (Frantzia eta Suitza «romande»n gertatu den moduan); jouala, aldiz, beste «patois» bat gehiago izatera iritsi da, inolako etorkizunik gabe.

Antzeko zerbait gertatzen ari da «kossovar» delakoarekin: Kossovoko B aldaera bihurtzen ari da; albaniera ofizialak, aldiz, «kanpotik» etorria izan arren, gero eta B motako funtzio informal gehiago bereganatu ditu, A aldaera gisa dagozkionak galdu gabe.

1) AGALeko Mintegia. 1994ko azaroaren 11n Santiago de Compostelan emaniko hitzaldia.

«Grezian ez da Katharevusa inposatu (diglosia greziarreko A goi-barietatea); demotikoaren aldaera normatizatua edo B barietatea baizik. Era berean, herrialde magrebiarretan eta albokoetan ez da arabiyya klasikoa edo A hizkuntza inposatu, B jatorriko eta bien tartean dagoen estandarra baizik. Ez greko klasikoa, ez arabiar koranikoa, ez dira gaur egun komunikazio hizkuntzak, ez Grezian, ezta Magreben ere»

Hori eta Walonian gertatzen ari den kasua guztiz antzekoak dira.

2.2.- Ustez aurkako joera asko egon arren, konstante nabarmenak daude.

Diglosi binomioko A hizkuntza alboko komunitateko hizkuntza normalizatua eta benetakoa denean, alboko A hizkuntza horrek elkarrizketako eremuak bereganatzen ditu. «Menpekotasun egoeran dagoen komunitateak» galdu egiten ditu nolabait bere B barietateko funtzioak, patuesizazio gorakorra, bazterketa geografiko, eta gizarte-bazterketa gertatuz, azkenean prozesu amaieran desagertzeko (Flandrian eta Suitzan hori ez gertatu arren).

Aldiz, diglosi binomioko A hizkuntza berez populazioaren inongo segmentuk erabilia ez izan eta alboko komunitate bat berean ere komunikazio arrunterako tresna ez denean, proposatutako A hizkuntza ez da komunitatean nagusitzen. Kasu honetan B hizkuntzak goi-mailako funtzioak irabazten ditu, eta elkarrizketarako B hizkuntza izatetik hizkuntza normalizatu integral eta bakarra izatera pasatzen da.

Argi geratu da berez Fergusonenak diren diglosi egoerak ere ez direla egonkorrak. Zer esanik ez, gizartean kontsentsu gutxiago duten eta gatazkatsuagoak diren beste zenbait elebitasunez.

3.- Beste zenbait kasu aztertzeak argitasun gehiago eman diezaguke.

Has gaitezen lehen aipatutako grekoaren kasuarekin.

Greziako Independentzia 1829ko Irailaren 4an lortu zela uste da.

Garai hartako potentzia handiek bai Mediterraneoan bai beste lurraldeetan etengabe eskuhartzen zutenenez, gogoratu beharra dago «Greziako Erresuma»n Londresen sortu zela 1830eko Otsailaren 3an. Grezia ofiziala 1832tik ezagutzen den arren, eta turkoen aurkako altxamendua 1821ean burutua izanagatik ere.

Kontua zera da: Nazio Askapenaren ondoren eta otomanoen menpe hainbeste mende egon eta gero, greziar abertzaleek argi ikusi zutela beharrezkoa zela hizkuntza nazional grekoa.

Herri-hizkera garbitu beharra zegoen, atzerritarren okupazioan geratutako «turkismo» asko kenduz. Elkarrizketarako grekoa «garbitu» beharra zegoen. Hortik dator «katharismo» hitza, garbikuntza; eta «katharevusa», greko garbitua.

Historia Nazionalea eta greziar herriaren eta bere lurren —zioten abertzaleek— iragan loriatsua memoria berreskuratzeko borrokatu dugun bezala, hizkuntza grekoa ere berreskuratu beharra dago, hizkuntza arrotzetako hitzak garbituz.

Asia Txikiko lurralde greziarrean (mende hasierako egun batean greziarren okupazioa garbitu zuena) dagoen Smyrnan jaiotako Admanton Koraisek (1748/1833) jarraitu zuen, Parisen erbesteraturik zegoela, greziar mugimendu nazionalistaren bilakaera garaipentsua, eta bera izan zen es-

tandar grekoaren «korpusa» egituratzen buru izandakoa.

3.1- Koraisek definitutako katharevusa hizkuntza teknikoki ezin hobea zen, baina idatzia bakarrik, inork ez zuen erabiltzen ahoz eguneroko bizi-moduan. Hizkuntza garbia zen, bai, baina artifiziala: «museoko eraikuntza» baten modukoa hizkuntzaren alorrean.

Eskolan haur greziarrek katharevusan idazten ikas zezaketen, baita irakurtzen ere. Baina ez hitz egiten, eta are gutxiago ohiko komunikazioan sartzen.

Beraz, hasteko, hizkuntza elitista zen, eguneroko bizitzatik kanpo zegoena. Teorikoki akatsik ez zuen hizkuntza zen, baina komunikaziorako benetako funtziorik ez zuena, paseoko abertzaleen ametsetarako izan ezik.

1837tik Atenaseko Unibertsitate bihurtu zen katharevusaren zaintoki. Nahikoa da urte haietan Unibertsitateari Grezian lagun ziezaiokeen soziologia taldea kontuan hartzea, gertaerak ulertzeko: katharevusa laster bihurtu zen Greziako eskuinaren hizkuntza proiektua.

Horren aurrean Mugimendu Demotista sortu zuen eta herri-korpusa edo greko «neo-helenikoa» proposatu zuen; Adamntion Koraisek erreferentziatzen hartutako arkaizantea zen hizkuntza idatzian baino gehiago oinarritu zen XIX. mendean hitz egindako hizkuntzan. Hizkuntza errealista zen, hizkuntzak bilakatuz doazela kontuan hartzen zuena, eta funtsean ahozkotasunean oinarritzen zena.

Parisen bizi zen Ernest Psichari helenista (1854/1929) izan zuen jarraitzaile.

Honek Fergusonek baino askoz lehenago definitu zuen diglosiaren fenomeno; eta askoz zehatzago gainera, gaur egun «diglosia» hitz grekoa Fergusonek sortua dela dirudien arren.

1901ean tirabira soziolinguistikoa azken muturreraino iritsi zen, eta Atenasko manifestazioan hildakorik ere egon zen.

Demotistak, Triandaphylidis-en zuzendaritzapean, «Hezkuntza Elkartea»-ren inguruan antolatu ziren (1910).

Baina horien aurrean, 1911ko Konstituzio Greziarrak 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, katharevusa izango zen Greziako eskoletan irakaspe-nerako erabiliko zen hizkuntza bakarra.

1926an Salonikako Unibertsitatea sortu zen (aipatutako Triandaphylidis demotistak bultzatuta) eta «greziar Nanterre» baten moduko bihurtu zen, gonbarazioak balio badu. Eskuin kontserbadorea Atenasko Unibertsitatean atrintxeratu zen.

Katharevusaren balizko aldaketa oro mende askotan bekatu iragingarritzat jo zen. Errealitatea maila guztietan demotikoaren aldekoa zen arren, eta herriak dialektalizatutako demotikoz hitz eginagatik, eta ez katharevusaz. Greziako bi Nobel Saridunek ere, Seferis (1963) eta Elytis (1979),

«Suitza germaniarrean, alemaniera suitzarra edo Schweizer-Deütsch delakoa orain arte alemaniera estandarrarentzat (Hoch-Deütsch) gordetako funtzioak eskuratzen hasi da. Eta Haitin, "duvalierismoaren" erorketaren ondoren, haitiar askoren ustez frantsesa atzerriko hizkuntza estandarra da; eta ez berez Haitiko Aldaera. Aldi berean, ez suitzar dialektalak, ez kreolé haitiarrak, ez dituzte elkarriketarako funtzioak galdu»

«Quebec-en kasuan (A frantsesa, B jouala) bigarrena herriko A hizkuntza bihurtzeko projektua atzera bota da. "Frantziako" frantses hizkuntza elkarrizketarako funtzioak bereganatzen ari da; jouala, aldiz, beste "patois" bat gehiago izatera iritsi da, inolako etorkizunik gabe. Antzeko zerbait gertatzen ari da "kossovar" delakoarekin: Kossovoko B aldaera bihurtzen ari da; albaniera ofizialak, aldiz, "kanpotik" etorria izan arren, gero eta B motako funtzio informal gehiago bereganatu ditu, A aldaera gisa dagozkionak galdu gabe»

demotikoz idatzi dute, bidebatez esateko.

Baina «lau koronelen» diktadura militarra amaitu arte itxaron behar izan da, azkenean Lege batek demotikoa baimentzeko (1976-IV-30).

Greziar diglosiako A barietatea belaunaldi bateko borrokaren ondoren idatzia, adeitua eta babestua izan denak, legezketasuna izan arren, ez du greziar gizartean nagusitzerik lortu. Errealitate soziologikoko hizkuntza «ez garbia» inposatu egin zaio gizartean eraginik baduen sektore bat berak ere hitz egin eta erabiltzen ez zuen hizkuntza «garbia»ri.

Honek hizkuntza baten normalizazio-mugei buruzko gogoeta sakona egitera bultzatu behar gaitu; prozesua herriari bizkarra emanda burutzen denean, batik bat bide burokratikoak, funtsean idatzia den korpusaren mesedetan...

4.- Eta berriro ere Irlandako porrot soziolinguistikoaren gainean pentsarazi behar digu.

Irlandan bazegoen elebitasun diglosikoa (eta orain ere, teorian, badago).

Teorian, irlandera, gaeliko zeltiarra, Irlandako A hizkuntza da («lehen hizkuntza nazionala» 1937tik hona); eta ingelesa B hizkuntza, galarazpen-bidean jarri beharrekoa, Konstituzioa hitzez hitz begiratuz gero.

Errealitatean, ordea, ingelesa hizkuntza bateratua da, Errepublikako eremu eta zonalde geografiko guztietan erabilera orokorra duena. Gaelikoa, aldiz, dialektalizatua, baztertua dago kostako sei hizkuntza irletan eta Meath deituriko gotorleku artifizialean (gaur egun ia desagertua), eta ez du benetako funtzio ez erabilerarik.

Irlandan berez ez dago diglosi egoerarik. Lehenik, Irlandan ez dagoelako bi-dialektalismoak (ingelesa eta gaelikoa ez dira hizkuntza beraren aldaerak). Eta bigarren, eta hau garrantzitsuagoa da, gaelikoa B hizkuntza informal gisa erabilia delako, zonalde oso jakinetan eta zehatzetan; hau ez da oztopo ingelesak funtzio horiek beste lekuetan betetzeko.

Jakina da gaur egun ingelesa leku eta funtzio guztietan erabiltzen dela, baita elkarrizketan ere. Teorian elebidunak diren Gaeltachta deiturikoe-tan ere, famili hizkuntza ingelesa izaten ari da egunetik egunera.

Errealitatean, eta egia oso gutxi alduz, gaur egun Irlandan inork ez du gaelikoz hitz egiten: ez Errepublikan; ezta, behar ez bezala, Ulster de-ritzon Iparraldean ere.

Irlandako hizkuntza «nazionala eta nagusia», zorritzarez, hizkuntza es-tratosferikoa da, bertan ez dagoena; joan den mendeko Grezia elebidu-nean katharevusa izan zen bezala. Gaelikoa, amets egiteko hizkuntza zen eta orain ere hala da, Irlandako errealitate soziologikotik kanpo dagoena, guztiz britainiarra eta ingelesa.

Irlandan ere B hizkuntza, behe-mailakoa eta elkarrizketarako, A hizkun-tzari, goi-mailakoa, idatzia eta benetan inork erabiltzen ez zuena, nagusi-

tu egin zitzaion.

4.1.- Irlandar hizkuntzako eskolak lehen hogeitun urteetan (Hego-Irlanda «askatu» zenetik) besterik ez zuen izan ikasle-kopuruan gorakada.

1940an ingeles hizkuntzaz jarduten ez zen eskola nazionalak goraldia eza-gutu zuen: haur irlandarren % 12k orduan irlandera ikasten zuen; maila hori ez da inoiz berdindu, eta are gutxiago gairitu. Gainerako % 88k, noski, Inperioko hizkuntzaz ikasten zuen.

Gaur egun Irlandako haurren % 95ak ingelesez ikasten jarraitzen du (Irlandako eskolen % 5ak bakarrik funtzionatzen zuen irlandera 1980-1981 ikasturtean; ikus Pádraig ó Riagáin, I.J.S.L., 70. zenbakia, 31. orria).

Datu kuantitatibo hauek gogoan edukitzea komeni da, ondoren ikusiko ditugun eta Norvegiari dagozkionekin parekatu ahal izateko.

4.2.- Irlandako hizkuntza egoeraren alderdi kualitatiboak ere ez du garrantzi txikiagoa.

Ez dago eta ez da inoiz ere egon, gaeliko hizkuntzako hiririk edota garrantzi handiko herririk. Ez dago eta ez da inoiz ere egon, potentzia ekonomiko eta kultur maila handiko talde soziologiko irlandarrik. Irlandako klase menperatzaileak, baita beraien buruak nazionalistatzat dituztenek ere («errepublikarrak» beraien diotenez, guztiz sintomatikoa den termino ez etniko batez), ingelesez hitz egiten dute orain eta beti.

Gaelikoa antzinako zonalde bertara ezin eta isolatuetan bakarrik erabili da (eta oraindik ere horietan bakarrik erabiltzen da koma-egoeran), hain zuzen, Irlandako benetako bizitzaren inguruetan kanpo dauden zonaldeetan.

Hona hemen beste datu nabarmen bat: 1916ko altxamendu nazionala bizi, bultzatu eta antolatu zuen eta garai hartako borroketan aktiboki parte hartu zuen abertzale irlandarren belaunaldiak ere nolabaiteko presio nazionala jasan zuen 1940. urtea bitartean. Zahartzarora heldu arte, nolabait esatearren.

Baina hurrengo belaunaldiak, heroi independisten seme-alaba eta ilobek osatutakoak, bizkarra eman zion Irlandako hizkuntza borrokari (eta beste batzuei). 1940. urtetik aurrera Irlandako hizkuntza nazionala etorkizunik gabe geratu zen, nazio-askapenerako borroka bizi izan ez zutenek huts egin baitzuten.

IRA erakundea 1959. urtean berriro agertzeak egoera berriz aldatu zuen, une honetan sakontasun handiz aztertzea zaila bada ere.

5.- Norvegiako kasuak desberdintasun sakonak dituen arren, gogoetara bultzatu behar gaitun antzekotasun harrigarriak ditu.

Norvegia Suediar estatutik aske 1905. urtean geratu izana, gertaera berria da. Hori gainera, Norvegia danimarkar kontrolatik suediar kontrolera pasatzen gertatu zen, 1814an Kiel-go Itunaren bidez.

«Nazio Askapenaren ondoren eta otomanoen menpe hainbeste mende egon eta gero, greziar abertzaleek argi ikusi zuten beharrezkoa zela hizkuntza nazional grekoa. Herri-hizkera garbitu beharra zegoen, atzerritarren okupazioan geratutako "turkismo" asko kenduz. Elkarrizketarako grekoa "garbitu" beharra zegoen. Hortik dator "katharismo" hitza, garbikuntza; eta "katharevusa", greko garbitua. Katharevusa hizkuntza teknikoki ezin hobea zen, baina idatzia bakarrik, inork ez zuen erabiltzen ahoz eguneroko bizimoduan. Katharevusa laster bihurtu zen greziako eskuinaren hizkuntz proiektua»

«Horren aurrean Mugimendu Demotista sortu zuen eta herri-korpora edo greko "neohelenikoa" proposatu zuen. Hizkuntza errealista zen, funtsean ahozkotasunean oinarritzen zena. Demotistak, Traindaphylidis-en zuzendaritzapean, "Hezkuntza Elkartea"-ren inguruan antolatu ziren (1910). 1911ko Konstituzio Greziarrak 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, katharevusa izango zen greziako eskoletan irakaspeneko erabiliko zen hizkuntza bakarra. Baina "lau koronelen" diktadura militarra amaitu arte itxaron behar izan da, azkenean Lege batek demotikoa baimentzeko (1976-IV-30). Greziar diglosiako A barietatea legezkotasuna izan arren, ez du greziar gizartean inposatzerik lortu»

Politika eta estatu-mailako banaketa honen aurretik, XIX. mende osoan zehar, borroka sakona izan zen hizkuntza independentziaren alde.

Norvegia orduan egoera benetan diglosikoan bizi zen. Oso ahaideak ziren iparraldeko bi hizkuntza germaniarrak erabiltzen ziren: alde batetik, Rickmala, hizkuntza ofiziala, Danimarkatik administrazioak inportatutakoa: hizkuntza formala, idatzia, diglosia-binomioko A hizkuntza. Eta bestetik, Landsmal-a, dialektalizatua, herriko bertako hizkuntza eta elkarriketarakoa, danieratik piska bat urrundu; ahozko hizkuntza, diglosi binomioko B aldaera.

Norvegiako mugimendu nazionalak, modu naturalean, Norvegiako berezko hizkuntza nazionala eskatu zuen, ez daniera ez Riksmal-a izango ez zena.

Nolabait planteamendu desberdinak zituzten Knudsen (1812/1895) eta Aasen (1813/1896) hizkuntzalari norvegiarrek zehaztu zuten Norvegia askatuko hizkuntza nazionala izango zenaren korpora: Norvegiako A hizkuntza, paperaren gainean.

Dialektologo autodidakta zen Ivar Aasen arduratu zen, zin-zinez, fiordo eta hirietako norvegiar dialektoak alderatzeaz.

Dialektoak seriooki alderatzeko azterketa batean oinarrituz, benetako estandar norvegiarra izan zitekeena berregin zuen. Lan honetarako batik bat daniera ofizialak gutxien kutsatutako pertsonen hizkeran oinarritu zen. Pertsona txiroak ziren, bidenabar esanda; Norvegia hiritarrean eragin txikia zutenak.

1864. urterako prestatua zuen bere Norske Grammar delakoa: «norvegierra batua»ren gramatika, euskaldunok esango genukeen bezala. Eta 1873. urterako prestatua zuen bere Norvegiara Hiztegia. Aasenek 60 urte zituen orduan.

5.1.- Ez zen erraza izan Aasenek Nynorsk-a (Norvegiara Berria) ofizialtzeko eta ezartzeko burutu zuen borroka. Hizkuntza estandarra zen, bateratua, alemanierako kalkoetatik garbitua, eta aipatu dugun bezala, Landsmala osatzen zuten herri-dialektoetan oinarritua.

Garaitu beharreko aldaera Riksmal-a zen: 1929an Bokmal izenaz birbaitatua, hitza «despolitizatze» B hizkuntza, paper gainean.

Baina Bokmal honek bere alde zituen ezarritako ohitura, aurreko eskola... Norvegiar idazle ospetsuenek (Ibsen, Hamsun) Bokmalez idatzi zuten. B hizkuntza, teorikoki, benetako norvegiara zen.

Aasenek 1884an lortu zuen (Norvegiaren independentzia politikoa baino 21 urte lehenago, beraz,) Norvegiako bi aldaerak, hobeto esanda, Norvegiako bi dialektoak, Nynorsk eta Bokmal deiturikoak, legearen aurrean berdinak izatea.

Aurrerantzean Norvegiako eskola guztietan bi hizkuntzak irakatsiko ziren. Idazmena nahitaezkoa zen; galarazia zegoen, ordea, ikasleak behar-

tzea etxeko ahoskera desberdina ahoskaraztera.

Aurrerantzean funtzionari guztiek bi hizkuntzak ezagutuko zituzten; alegia, gai izango ziren, bereziki, Norvegiako bi dialekto ofizialetan irakurri eta idazteko. Elkarren arteko ulermena ia erabatekoa zela gehitu beharra dago.

1905 eta 1944 urteak bitartean Aasen Nynorsk-ak aurrera egin zuen; eta gero eta guraso gehiago bereganatu zituen. 1944an goraldia ezagutu zuen: Norvegiako eskoletako ikasleen % 34k Nynorsk-en hasi zituen ikasketak.

Aldaera hau baserri-giroan bakarrik zen nagusi. Oslo eta Bergenen, aldiz, hizkuntza nagusia familietan Bokmala zen.

1958an, egoera honako hau zen: haurren % 23,5ak jatorriko famili hizkuntza Nynorska zuen; Bokmala, aldiz, % 76,5ak zuen. Eta 1976an kopuruak honako hauek ziren: Bokmal-eko ikasleak % 83,5, Nynorsk-ekoak, aldiz, % 16,5. Igaro da hainbat hamarkada Nynorsk-ak «goia jo» zuenetik hona, eta orain jaisten ari da, argi eta garbi.

5.2.- Hemen azaldutako prozesuen arteko desberdintasunek neurketarik behar ez dutenez, bateratasun harrigarriak daude: 1905 eta 1944 bitartean 39 urte igaro dira. Norvegiako bereizketa politikoaren alde borrokatu ez zuten belaunaldiak oso hotz agertu dira Aasen hizkuntza-proiektu nazionalaren aurrean.

Badirudi Norvegiako belaunaldi berriei berdin zaiela lehen herriko jauntxoak izan ziren eta etnikoki lehengusu txikiak diren danimarkarren hizkuntza bera hitz egin eta idaztea.

6.- Honek berehalako irakurketak ditu galegoaren eta euskararen normalizazioari begira. Eta oraingo honetan nire herriko kasura mugatzen utziko didazue; askotan eman baitut «Galiziako integrazionismo/separatismoa»-ren arteko eztabaidari buruzko iritzia.

Nire ustez badago nahiko arrazoi serio honako hau pentsatzeko:

6.1.- berez nazionala den estandar baten gaineko hizkuntza normalizazioa burutzea ezinezkoa da, nazioa berrindatu eta berreraikitze proiektu osoa kontuan hartu gabe.

6.2.- badirudi nazio-askapeneko prozesua zuzendu eta gauzatu duen belaunaldia ez dela gai hurrengo belaunaldiei proiektuaren helburu eta nahiak transmititzeko.

6.3.- ondorioz, nazio-independentiaren alde galdutako urteak eta berreskurapen soziolinguistiko nahikoa martxan jartzen emandako hurrengo 20 edo 30 urteak, kaltegarriak gerta daitezke geroago hizkuntza proiektu nazionala dinamizatzeko.

6.4.- salatu beharra dago, eta batzar jakintsu honen aurrean salatzen dut, azken urteotan EAEko erakundeek eta erakundeok kontrolatzen dituzten «alderdi nazionalistek» izan duten erantzukizun larria, hizkuntza karte-

«Irlandan teorian, gaeliko zeltiarra, Irlandako A hizkuntza da ("lehen hizkuntza nazionala" 1937tik hona); eta ingelesa B hizkuntza, galarazpen-bidean jarri beharrekoa. Jakina da gaur egun ingelesa leku eta funtzio guztietan erabiltzen dela. Teorian elebidunak diren Gaeltachta deiturikoetan ere, famili hizkuntza ingelesa izaten ari da. Gaur egun Irlandako haurren %95ak ingelesez ikasten jarraitzen du. Ez dago eta ez da inoiz ere egon, gaeliko hizkuntzako hiririk edota garrantzi handiko herririk, ezta potentzia ekonomiko eta kultur maila handiko talde soziologiko irlandarrik. Irlandako klase menperatzaileak, baita beraien buruak nazionalistatzat dituztenek ere ingelesez hitz egiten dute orain eta beti»

«Norwegian oso ahaideak ziren iparraldeko bi hizkuntza germaniarrak erabiltzen ziren: alde batetik, Rikmala, hizkuntza ofiziala, Danimarkatik administrazioak importatutakoa. Eta bestetik, Landsmal-a, herriko bertako hizkuntza. Garaitu beharreko aldaera Riksmal-a zen: 1929an Bokmal izenaz birbataiatua. 1884an lortu zen Norvegiako bi dialektoak, Nynorsk eta Bokmal deiturikoak, legearen aurrean berdinak izatea. Aurrerantzean Norvegiako eskola guztietan bi hizkuntzak irakatsiko ziren eta funtzionari guztiek bi hizkuntzak ezagutuko zituzten. 1958an, egoera honakoa zen: haurren %23,5ak jatorriko famili hizkuntza Nynorska zuen; Bokmala, aldiz, %76,5ak zuen. Eta 1976an kopuruak honako hauek ziren: Bokmal-eko ikasleak %83,5, Nynorsk-ekoak, aldiz, %16,5»

rak euskararen arerio nabariak eta meneraezinak direnen esku utzi dituztelako behin eta berriz; esperientzia soziolinguistikoak funtsezkoak direla erakusten digun urteak galduz.

6.5.- ez du asko balio, zientifikoa eta zuzena izan arren, korpus bateratu bat egiteak; ez behintzat horren atzean ahoz erabili eta bultzatuko duen nahiko maila kultural eta ekonomikoko gizarte-talderik ez badago.

6.6.- hizkuntza borroka ez da zelaian erabakitzen, ezta nazio-geografiako antzinako gotorleketan ere, hirietan baizik; eta beraz, hiri-zona euskaldun bat berrindartzea (Donostia inguruan, noski) guztiz funtsezkoa eta lehentasunezkoa da.

6.7.- hemen ere salatu beharra dago, teorikoki beren buruak abertzaletzat dauzkaten alderdi politiko abertzaleek erakutsitako arduragabekeria neurritz kanpokoak, izan ere, hauteskundeetan etekina merke ateratzeagatik, Donostiako udala Euskal Herriaren hizkuntza berreskurapen osoko prozesuan hiri euskaldun bat izateak duen garrantziaz jabetzeko gai ez direnen esku utzi baitute.